


Eraikuntza-kostuek, Euskal AEn, % 1,6 egin dute gora 2022ko martxoan

Urte arteko terminoetan, 2022ko martxoa 2021eko martxoaren aldean, kostuek % 9,3 egin dute gora

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizeak % 1,6 egin du gora 2022ko martxoan, aurreko hilarekin alderatuta, Eustatek emandako datuen arabera. Aurreko urteko hil berarekin alderatuta, kostuek % 9,3 egin dute gora.

Eraikuntzaren sektoreko kostuek % 1,2 egin dute gora hil arteko terminoetan, eta Obra zibilekoek, % 3,4. 2021eko martxoari dagokionez, prezioak % 8,6 igo dira Eraikuntzaren kasuan eta % 12,3, Obra zibilaren kasuan.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren aldean, 2022ko otsailaren aldean, **lehengaien** kostuek % 2,2 egin dute gora, eta **eskulanaren** kostuak egonkor dirau (% 0,0). Urte arteko terminoetan, lehengaien kostuak % 10,4 egin du gora, eta eskulanenak, % 5,8.

Eraikingintzaren sektoreak hil artean % 1,6ko igoera izan du lehengaien kostuan, eta Obra zibilaren kostuak, % 4,4koa. Urte arteko bilakaeran, Eraikingintzako lehengaien kostuek % 9,5 egin dute gora, eta Obra Zibilekoek, % 14,3.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Martxoa 2022

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	117,8	1,6	9,3
Eraikinak	117,2	1,2	8,6
Obra zibila	120,5	3,4	12,3
Lehengaiak	118,1	2,2	10,4
Eraikinak	117,3	1,6	9,5
Obra zibila	121,6	4,4	14,3
Laneskua	116,7	0,0	5,8

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Apirilaren 26a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektorean kontsumitutako lehengaien prezioetan, 2022ko martxoan 2021eko martxoarekin alderatuta, igoerarik handienak erregistratu dituztenak honako sektore hauetakoak izan dira: *Petrolio finitza* (% 60,9), *Energia elektrikoa eta gasa* (% 59,2 gora) eta *Metalurgia* (% 29,5). Prezioetan hazkunderik apalenak izan dituzten sektoreak honako hauek izan dira: *Mineral ez-metalikoak* (% 4,2ko igoera) eta *Altzarigintza* (% 4,4koa).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Martxoa 2022

	m / m-12
Ezmetalezko meak	4,2
Zuraren eta kortxoaren industria	21,3
Petrolio finitza	60,9
Industria kimikoa	25,5
Kautxua eta plastikoa	7,4
Produktu mineral ez-metalezkoak	10,0
Metalgintza	29,5
Metalezko artikulak	10,9
Material elektronikoa	8,4
Material elektrikoa	5,0
Makineriaren fabrikazioa	4,9
Altzarigintza	4,4
Energia elektrikoa eta gasa	59,2

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2022ko Apirilaren 26a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62